

GEP Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren VI. Astean

2007/10/30

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak, MCCko Berrikuntza Sailak, Garaia Berrikuntza Guneak, Ikerlanek eta Aotekek elkarlanean, hainbat ekintza programatu dituzte Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren VI. Astearen esparruan. Aste hau azaroaren 5etik 11ra ospatuko da, Euskal Herriko hainbat tokitan.

Era berean, Innobasque – Berrikuntzaren Euskal Agentziaren beste agenteek jarduera asko programatu dituzte aste guztiaren zehar.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren astearen helburua ikerlanarekiko gizartearen interesa piztea, jarduera teknolokoaren emaitzak zabaltzea, ikerketa zientifikoa sustatzea eta gizartearekiko elkarriketa bultzatzea da.

